



## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gimnasio honen berezitasun handiena 24 ordutan irekita egongo dela da; bestalde beste edozein gimnasiok eskaini ditzakeen gauza guztiak edukiko ditu. Besteak beste: spinning aretoa, muskulazio gela, igerilekua...

Inguruan gimnasio munizipala eta beste pribatu bat daude baina biek ordutegi finkoa dute. Hortaz baliatuko gara jendea erakartzeko gurea ez baita ixten. Bestalde gaur egun ematen ari den gimnasioen eskaera eskaintza baino handiagoa dela kontuan harturik hori ere aprobetxatuko dugu.

Bertako gimnasioak baino handiagoa, erosoagoa, modernoagoa eta kalitate handiagokoa izango da gurea. Sei zatitan banatuko da gimnasioa:

- Harrera.
- Aldagelak dutxekin.
- "Kardio gunea".
- "Pesa gunea".
- Zumba/pilates/yoga... gela.
- Piztina, jacuzzia, sauna eta izotz bainuontzia.

Beste gimnasioek ez dituzten hainbat berezitasun eskaini/izango ditugu:

- 24 orduz irekita egongo da.
- Eskaintza zabala.
- Prezioa ona.
- Material berria.
- Masajista eta dietista zerbitzua eskura.





## LEHIA EGOERA (AMIA)

	Indarrak	Ahuleziak
Barne-analisia	<ul style="list-style-type: none"><li>-Azken belaunaldiko teknologia.</li><li>-Kirola egiteaz gain lasaitzeko guneak ere badaude (igerilekua, sauna...)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Material garestiak erosteko barne finantzazio eskasa.</li></ul>
	Aukerak	Mehatxuak
Kanpo-analisia	<ul style="list-style-type: none"><li>-Bazkideengandik hurbil.</li><li>- Lehia txikia inguruan.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Jendeak gimnasio konkretu batera joateko ohitura izan dezake. Bezero lehialak.</li></ul>